

tean txirula jotera datorrenean, bertatiko iskanbillez agertzen dira lorak, nundik jakin ez; eta gero, dantzaka asten yatzuz, bedar gaiñean, poz-dardar ta zorozka.

—Amatxo: lorak, nik uste, lurpeko ikastolaren batera joango dira, ezta alan? An, atea itxirik, ikasgaiak ikasiko dituez. Eta ordua baifio len jolasketara urten nai ba'leukie, euren irakasle andereñoak bazter baten ipiñiko ditu belauniko. Baiña, euriak datozanean, areik bai jai-egon ederra !

Ara, karrask-ots bizian dabiltz adarrak zugaztian ; ostoak murmur dagie aize zoroak astinduta ; trumoi-odeiak txaloka diardue euren esku zakarrak gora ta beera... Lora neskatillak, barriz, landara doiaz arin, gorri ta ori ta zuri jantzirik...

—Entzuizu, ama : lorak zeruan eukiko dabe euren etxea, izarrakaz, ezta alan ? Begira, bestela, arein gora-nai leiatsua ! Eta zuk ezetz jakin, zergaitik doiazan ain bizkor ! Nik bai, ba-dakit ! Besuak nori luzatzen dautsiezana be bai, ba-dakit nik. Lorak be ama bat daukie, nik zu zaukadan lez.

MERKATARIA

Egizu, ama, ni errialde ez-ezagunetan zear noi-ala ta zu etxean geratzen zareala bakar-bakarrik. Irudiz baiño ezta be, koskondu egizu nire itxas-ontzia, goraiño gauzaz beteta, nasan (portuan) zain

daukodana. Orain, gogoratu egizu ondo, ama: Onuzkoan, zer nai zeunke nik zuri ekarte a ?

Ama, esaidazu zer gura zeunken. Urre-meta ta pillo andiak ? Ni noian lekuan, ba, urrezko ibaiak dabilta ara ta ona, urrezko gariz gaiñezka dagozan solo ta zelai artean. Eta basorako bide illunean, lur guztia estaltzen dabe txanpaka lore beilegiak. Neure eun zimeretan batu ta zeuri ekarriko dautzudaz danak.

Nai dozuz, ama, bitxi andiak, udazkeneko euri-tanta baizen andiak ? Ni, ba-dakizu, bitxien ugarteraiño eldu bearra naz. An, goiz-goizetik, len-argia urratzerakoan, zelaiko loretan dardardantzau daukozuz bitxiak ; bedar gaiñera jausten euretarik eundaka ; ta olatuak be, zorozkarro, bitxiak ereiten dabez ondar gorrian, itxas-bitsagaz nastean.

Nire anaiari egodun zaldi-bikotea ekarriko dautsat, odei ta laiño gaiñetik egaztu daiten. Aitari, barriz, luma bat ekarriko dautsat, berak ez dakiala idazten dauan luma lilluratua. Baiña zuretzat, ama, zazpi erregeen aginterriak erosteko bear izan ziran diru-altxorra ta gorde-kutxa neuretuko ditut.

EREGUAK

Ni, ama, zure seme izan bearrean, txakur mirriza baiño ez ba'nintz, zure aspilletik jan gura ba'neu, "ezetz" esango zeuskit ? Mintzo, zeure on-